



# **IKASLE ETORKINAK ARTATZEKO PROGRAMA**

**(2003ko abenduaren 9ko Inmigrazioaren Euskal  
Planaren barnean)**



---

**AURKIBIDEA**

---

- 1. Sarrera**
- 2. Egungo egoeraren diagnostikoa**
  - 2.1. Ikasle etorkinen bilakaera
  - 2.2. Ikasleen egoera eta banaketa
- 3. Oinarrizko printzipioak**
  - 3.1. Integrazio-printzipioa
  - 3.2. Berdintasun-printzipioa
  - 3.3. Interkulturalitatearen printzipioa
  - 3.4. Kalitatearen printzipioa
- 4. Hezkuntza-beharrak**
  - 4.1. Behar linguistikoen arreta
  - 4.2. Curriculum-beharren arreta
  - 4.3. Tutoretza-beharren arreta
- 5. Helburuak**
  - 5.1. Helburu orokorra
  - 5.2. Berriazko helburuak
  - 5.3. Helburuen lorpena
- 6. Eskolatzeari orientatzeko irizpideak**
  - 6.1. Aurregogetak
  - 6.2. Ikastetxea proposatzeko irizpideak
  - 6.3. Irakasteredua proposatzeko irizpideak
- 7. Jarduketaren eta esku-hartzearen ildoak**
  - 7.1. Euskal hezkuntza-sistemari buruzko informazioa
  - 7.2. Onartzeko eta eskolatzeko prozesua
  - 7.3. Materialen zabalkundea
  - 7.4. Irakasleen prestakuntza
  - 7.5. Hizkuntza ofizialen irakaskuntzarako euskarri-ekintzak
  - 7.6. Ama-hizkuntza eta jatorrizko kultura ikasteko programen laguntza
  - 7.7. Koordinazioa eta lankidetzak Administrazioako beste zerbitzu batzuekin eta beste erakunde batzuekin
  - 7.8. Ikasle etorkin asko dituzten ikastetxeetako kalitatearen hobekuntza
  - 7.9. Bekak eta laguntzak
- 8. Baliabide espezifikoak**
  - 8.1. Antolakuntza-baliabideak
  - 8.2. Giza baliabideak
  - 8.3. Baliabide materialak, didaktikoak eta teknologikoak
  - 8.4. Baliabide ekonomikoak
- 9. Eskumen-mailak**
  - 9.1. Hezkuntza Sailburuordetza
  - 9.2. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak
  - 9.3. Ikastetxeak
  - 9.4. Berritzeguneak
- 10. Harrera eta integrazioko berriazko plana**



## 1. Sarrera

Gaur egun, gero eta gizarte plural eta globalizatuago batean bizi gara, mugikortasuna eta migrazioak gero eta sarriagoak diren gizarte-ingurune batean. Immigrazioaren fenomenoak erreakzioa sortzen du sarritan lehen mundua delako gizarteetan, arrazakeria eta xenofobiako jarrerekin, eta hori nola edo hala borrokatu beharra dago errespetuan, tolerantzia aktiboan elkartasunean eta gisako baloreetan oinarritutako hezkuntzaren bidez.

Bi zentzuetan migrazio-mugimendu handiak izan dituen lurraldea da Euskadi. Euskal herritar askok eta askok Ameriketara emigratu ondoren, industrializazio handia izan zuen XX. mendean, eta eskulan berria behar izan zuen. Eskaera horri jarraiki, etorkin asko etorri ziren Espainiako Estatuko gainerako nekazaritza guneeetatik. Hortaz, bertako biztanleen eta, besteak beste, Andaluzia, Extremadura, Galizia eta Gaztelatik etorritako etorkinen emaitza da Euskadi.

Egungo migrazio-fenomenoa orain dela gutxikoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako etorkinak biztanleriaren % 2 dira, eta Espainiako Estatuko beste leku batzuetan, aldiz, % 8 inguru. Nolanahi ere, biztanle kopuru hori handitzen ari da, eta kanpotik etorritako ikasleak gehitzen ari dira azken urteotan.

Aldi batetik hona, etorkinak hartzen dituen lurralde bihurtu da EAE. Asko Latinoamerikatik, Magrebetik, Europako Ekialdetik nahiz Saharatik beherako Afrikatik etorritakoak dira, esaterako. Egoera horrek familia etorkinen haurren hezkuntza-arreta eta helduentzako prestakuntza-ekintzak antolatzea behartzen gaitu, aintzat hartuta migrazio-mugimendu batzuen azpian gabezia sozial eta ekonomiko larriak daudela, eta, beraz, konpentsazio eta berariazko laguntzako ahalegin berezia egin behar dela.

Geroz eta gehiago dira gure hezkuntza-sisteman sartzen ari diren jatorri etorkineko ikasleak, bai absolutuki, bai erlatiboki, batez ere kontuan hartzen badugu murriztu egin dela eskolatutako ikasleen guztizko kopurua.

Euskal Eskola Publikoaren legeak honela definitzen ditu bere ezaugarriak: "Euskal eskola publikoa, horko ikastetxe bakoitza, anitza, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea". Bere helburuen artean honako hau du: «Maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan jardutea, ikasleen jatorrizko desberdintasunak konpentsatzeko xedez».

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko AGINDUAK, egoera sozial edo kultural baztertuan dauden ikasleentzako hezkuntza-ekintza, eta eskolan egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleentzako hezkuntzako esku-hartzearen neurriak arautzen dituenak, hainbat irizpide errektore ezartzen ditu, eskolan egokitzeko zailtasun pertsonal bereziak dituzten ikasleei eta egoera sozial edo kultural baztertuan daudenei eman beharreko eskola-erantzunarentzat.


Beraz, gure ikasle guztien artean hezkuntza nola bideratu behar den pentsatu behar dugu, arraza, hizkuntza eta jatorri kulturalaren arabera bereizketarik egin gabe, guztien artean errespetuzko eta tolerantziatzeko gune komun bat eraikitzeko helburuarekin.



## 2. Egungo egoeraren diagnostikoa

### 2.1. Ikasle etorkinen bilakaera

EAEko biztanle etorkinen eskolatuak (HHEko ikasleak barne) ugalduz joan dira, batez ere azken urteotan, honako grafiko honetan ikus daitekeenez:



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza. 2003ko maiatza.

2000-2001 ikasturtean, guztira, % 40,3 gehitu ziren ikasle etorkinak; 2001-2002an, % 40,2, eta 2002-2003an, % 43,82 aurreko urtekoen aldean. Eta gainera, kontuan izan behar da ehuneko horiek etengabe aldatuz doazela, egunetik egunera gero eta ikasle etorkin gehiago ari dira-eta sartzen gure hezkuntza-sisteman.

Hona hemen aurtengo ikasturtean zenbat ikasle etorkin gehiago diren, aurreko ikasturtearekin konparatuta: Lanbide Heziketan % 88,10, Haur Hezkuntzan % 60,74, Lehen Hezkuntzan % 41,67, DBHn % 34,52, eta Batxilergoan % 27,05.

Datu horiek erakusten dutenari jarraiki, ziurtzat jotzen da hazkundera mantendu edo bizkortu egingo dela datozen urteetan, une honetan ezagutzen ez ditugun mugetaraino, eta, seguru asko, egungo portzentajea baino askoz handiagoak lortuko dira. Lehendabiziko urteetan behintzat, ikasle etorkinen portzentajeak berdindu egiten dira lehen hiru etapetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH), eta handiagoak dira beste bi etapetan baino. Lanbide Heziketan Batxilergoan baino hazkunde handiagoa aurreikusten da.

### 2.2. Ikasleen egoera eta banaketa

Lurraldeka eta eskola-sareka ere desberdin banatzen dira Ikasle etorkinak. Hona hemen datuak:




	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
Publikoa	1.454	83.13	3.117	78.27	1.349	64.48	5.920	75.67
Itunpekoa	295	16.86	865	21.72	743	35.51	1.903	24.32
<b>Guztira</b>	<b>1.749</b>	<b>100</b>	<b>3.982</b>	<b>100</b>	<b>2.092</b>	<b>100</b>	<b>7.823</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>22.35</b>		<b>50.90</b>		<b>26.74</b>		<b>100</b>	

EAEko ikasle etorkinen erdia baino gehiago (% 51) Bizkaian eskolatzen da, % 27 Gipuzkoan eta % 22 Araban.

Sare publikoak ikasle etorkinen % 75 eskolatzen du (guztizko kopuruaren bi heren), nahiz eta berez EAEko ikasle guztien % 47,5 baino eskolatu ez hark. Portzentaje hori hezkuntza-etapa guztietan mantentzen da oinarrian.

Lurraldeka hartuta, Araban dago desorekarik handiena: % 83 sare publikoan eta % 17 itunpekoan. Bizkaian desoreka hori txikiagoa da: % 78 sare publikoan, eta % 22 itunpekoan; eta Gipuzkoan, berriz, oreka handiagoa dago: % 64,5 sare publikoan, eta % 35,5 itunpekoan. Datu horiek bildu dira honako grafiko honetan (HHIko datuak barne hartuta):



### 3. Oinarrizko printzipioak

Ikasle etorkinak eskolatzea erronka bikoitza ari da izaten euskal hezkuntza-sistemarentzat, eta, ondorioz, eskolentzat: hezkuntza kultura anitzeko testuinguru bati egokitzea, eta ikasle horientzako berriazko hezkuntza-beharrei erantzuna ematea.

#### 3.1. Integrazio-printzipioa

Euskal hezkuntza-sistemaren oinarrizko printzipioetako bat eskola-integrazioa da, hezkuntzako berdintasun-eskubidearekin eta gizarte-kohesioari laguntzeko xedearekin bat etorritik. Printzipio hau aplikatzeko eta helburu hori kultura desberdinetako ikasleekin betetzeko biderik koherenteena kultura arteko hezkuntza da, hau da, berdintasunean eta dibertsitatearekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza.



### 3.2. Berdintasun-printzipioa

---

Kultura arteko hezkuntza ez da soilik etorkinak harrera-gizartean integratzea; biztanlerian ere integratu behar dira. Berdintasuna da oinarriko printzipioetako bat, eta, beraz, talde gehiengodunek talde gutxiengodunetako kideak euren berdin gisa onartzea izan behar da helburua.

Ikasle asko egoera sozial baztertuan eta desberdintasun sozialeko baldintzetan bizi dira, eta eskolak bere eremuan egoera hori gainditzeko saiatu behar du. Pertsona guztiak berdintasunezko planoan ezartzeko, honako hauek egitea komeni da:

- Ikasleen eskola-arrakasta bultzatzea, hori eragozten duten langak eraitsiz.
- Hainbat kulturatako pertsona esanguratsuak integratzea ikastetxeko partaidetza-organoetan edo eskola-jardueretan.
- Gutxiengoen kulturetako familiekiko elkarrizketa bultzatzea.
- Jarrera baztertzailerei adi egotea, eta era horretako jarrerak aldatzeko lan egitea.
- Kultura-aniztasunetik eratorritako gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzea.

### 3.3. Interkulturalitatearen printzipioa

---

Interkulturalitateak kultura-aniztasunaren perspektiba gainditzeko du; izan ere, kultura denak errekonozitzeaz eta egokitzeaz gain, kultura horien arteko elkarrizketa proposatzen du, berdintasunezko eta elkarrekikotasunezko egoeran, eta elkarbizitza ahalbidetuz. Interkulturalitatearen ikuspuntuan aintzat hartu behar dira beti elkarrekin aztertzen ez diren bi alderdi hauek: kultura-ezberdintasuna eta desberdintasuna. Ikasle etorkinak ikusi behar du baduela bere lekua taldean, estimatua dela, eta bere hizkuntza eta kultura balioesten direla. Horretarako egokiak izango dira:

- Curriculumean beste kultura batzuetako edukiak sartzea, batzen gaituena nabarmenduz, bereizten gaituena nabarmendu beharrean.
- Kultura-elementu desberdinak erabiltzea jarduera didaktikoetan, edo jarduera horiek kulturalki heterogeneoak diren taldeetan egitea.
- Ikastetxearen bizitzan kultura eta hizkuntza desberdinen presentzia islatzea.
- Gutxiengoen kulturetarako sarbidea bideratzea ikasle guztiei.
- Elkarrizketa kritiko bat ezartzea kultura guztien artean.

### 3.4. Kalitatearen printzipioa

---

Hezkuntza egokitzen joko da proposatutako helburuak lortzeko eraginkorra bada, eta, aldi berean, bidezkoa bada, helburu horiek guztiontzako direlako, inor bazter utzi gabe, eta ikasle bakoitzak dituen aukerak kontuan hartu gabe. Ikasleen gaitasun pertsonal, sozial, etiko eta intelektual guztien garapen autonomorantz bideratuko dira helburu horiek. Era berean, hezkuntza egokitzen joko da proiektu pertsonalak garatzeko aukera emanez hainbat hezkuntza-aukera eskaintzen baditu, ikasleak talde baztertzailleetan banandu gabe, eta, halaber, gizarte-kohesioaren funtsa diren konpartitutako balio demokratikoetan oinarrituz elkarbizitzen eta lankidetzan aritzen erakusten badu.

Eraginkortasuna, askatasuna, ekitatea eta gizarte-kohesioa izango dira EAEko hezkuntza-sistemaren erabaki guztien oinarriak, ikasle guztiek, salbuespenik gabe, ikasle etorkinak barne, beren gaitasun pertsonalak, trebetasun kognitiboak, espresiboak eta



harremanetakoak garatzeko aukera izan dezaten eta bizi diren munduko kultura ezagut dezaten; horrela, edozeinek egin ahal izango ditu goi-mailako ikasketak eta eskuratu ahal izango ditu lan-munduan sartzeko beharrezko gaitasunak.

## 4. Hezkuntza-beharrak

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan sartzan diren ikasle etorkinek dituzten hezkuntza-beharrak hiru eremutan sailka daitezke:

- Behar linguistikoak, EAEko hizkuntza ofizial bat edo biak ez ezagutzetik eratorriak. Gabezia horiek eragina dute pertsonen arteko harremanetan eta harreman sozialetan nahiz ikaskuntzan.
- Curriculum-beharrak, ingurune berriko gehiengoaren kulturaren eta familian bizi izan den eta bizi den kulturaren arteko desberdintasunarekin lotuak; gainera batzuek gabeziak izaten dituzte, batez ere ezagutza instrumentaletan, aurreko eskolatzerik ezaren edo eskasegiaren ondorioz.
- Tutoretza-beharrak. Batzuk eskolan eta gizartean integratzeko zailtasunetatik datoz. Beste batzuk familiako arau eta ohituren eta ikastetxean edo ingurunean proposatutako arteen dauden desberdintasunetatik; badira, ikasle batzuek kasuan, bazterkeriazko egoera sozial eta familiar zailetatik eratorriak ere.

Ikasle askok ikastetxe batean sartzean berriazko hezkuntza-beharrak dituztela errekonozitzeak ez du behartzen halaberharrez hezkuntza-behar berezi gisa katalogatzera.

### 4.1. Behar linguistikoaren arreta.

Ikasle etorkinek hainbat faktore baldintzatzaile dituzte hezkuntza-sisteman erabat sartzeko. Lehen, irakaskuntzako irakas-hizkuntza ikastea da. Hizkuntza ezinbesteko tresna da pertsonen arteko harremanetarako, gizartean integratzeko eta ikaskuntzarako. Ikasle etorkinen hizkuntza-ikaskuntzako beharrak behar adina ez bideratzeak, gainditzeko zailak diren eskola-atzerapenak eragin ditzake kasu askotan.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daude, eta hezkuntza-sistema elebiduna da. Egoera soziolinguistikoa diglosikoa da, eta hizkuntza menderatzailea, gaztelania.

Euskal hezkuntza-sistemaren helburuetako bat hau da: derrigorrezko irakaskuntza amaitzean, ikasle guztiek bizitza praktikoan moldatzeko eta euren ikasketak bi hizkuntzetako edozeinetan jarraitzeko moduko gaitasuna izatea. Prozesu egokiarekin bi hizkuntzak ikasteko gai izan behar dute ikasle guztiek, kontrarik justifikatzen duen arrazoi pertsonalik ez badago behintzat.

Desberdintasuna gainditu nahi duen hezkuntzak ez du bide eman behar bi hizkuntza ofizialetako bat ez jakiteko. Euskal gizartean integratu nahi dutenentzat, bi hizkuntzak ikastea eskubide izateaz gainera beharrezkoa ere bada, gizarteko kide izateko eta hala sentitzeko, eta gizartean nahiz lan-munduan integratzeko aukerak gehitzeko.

Eskolako eremuan hizkuntza berri bat ikasten denean, berdinen arteko komunikazio-egoeretan eta area desberdinetako curriculum-edukien ikaskuntzan erabiliz ikasten da. Horregatik, B eta D ereduak eskaintzak ere guztientzat irekita egon behar du, eta, bereziki, bi hizkuntzak batik bat eskolan ikasi ahal izango dituztenentzat.



Orain dela gutxi arte, ikasle etorkinak A ereduaren eskolatzeko joera zen nagusi, uste zelako horrela errazago ikasten zutela eta eskolan ere hobeto txertatzen zirela. Horren arrazoi nagusia izan da etorkin askok ez dutela ezagutzen Euskadiko errealitate linguistikoa, eta euskara eguneroko bizitzarako ez dutela oso erabilgarritzat jotzen. Baina, gaur egun, gero eta ikasle gutxiago eskolatzen dira A ereduaren, batez ere etapa eta lurralde jakin batzuetan. Eta horrexegatik positiboagozat jotzen da B eta D ereduaren eskolatzea, eredu horiek dira-eta bertako ikasleek ere gehien eskatzen dituztenak. Dena dela, eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 13. artikuluan hitzez hitz ezartzen duen legez, “Euskal eskola publikoan, ikastetxeetarako sarbidea bermatuko da ezartzen den plangintzaren barruan...” eta “Gurasoek edo tutoreek dute ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubideaz baliatzeko ahalmena”. Horrela, bada, familiak dira azkenean zein ikastetxetan eta zein ereduaren (A, B nahiz D) matrikulatu erabakitzen dutenak.

Ikasleak ez baditu ezagutzen bi hizkuntza ofizialak, ikastetxeak hizkuntza horiek ikasteko baliabideak eskaini behar dizkio: lehendabizi, eskolatutako ereduaren oinarritzko hizkuntza ikastea bermatu behar da, eta, ondoren, beste hizkuntza ikasten hasiko da. Edonola ere, indarrean dauden ereduak egokitu egingo dira ikasle hauen baldintzen eta ezaugarrien arabera.

## 4.2. Curriculum-beharren arreta.

---

Curriculumari lotutako hezkuntza-beharrek bi motatakoak dira oinarrian:

- Eduki zehatzak ikastea, bereziki Euskal Herriko ingurune geografikoari, historikoari eta kulturalari lotutakoak.
- Oinarritzko ikaskuntza instrumentalak, berez ikasturteari dagokion adinaren arabekoak.

Behar horiei erantzuteko bidea, jardueretan erreferentziako taldearekin baldintza berdinetan ahalik eta azkarren parte hartzeko bide ematen duten curriculum-egokitzapenak dira. Curriculum-egokitzapenak hainbat bidetatik antola daitezke, bi horiek osagarritzat jotz:

- Derrigorrezko edukiak murriztea, zikloko oinarritzko edukietan zentratzeko.
- Curriculuma jarduera didaktikoekin aberastea; jarduera horietan ikaslearen kulturako berezko erreferentziak sartuko dira, esanguratsuenak izan dakizkion.
- Berariaz pertsonalizatzea ikaskuntza, jarduera horietarako diseinatutako jarduera didaktikoekin eta jarraipen etengabea egitea, ikaslearen zailtasunak eta aurrerapenak zehazteko.

## 4.3. Tutoretza-beharren arreta.

---

Ikasle etorkinek integratzeko arazoak izan ditzakete euren desberdintasun kultural eta linguistikoen ondorioz, edota beste arazo pertsonal batzuetatik eratorrita. Ikastetxeari dagokio:

- Harrera-giro ona sortzea eta ikasleak gelako jardueretan eta eskolaz kanpokoetan txertatzen saiatzea.
- Euren ikaskideekiko harremanetan sor daitezkeen arazoen jarraipena egitea.





- Hitz egiteko eta erlazionatzeko modu jakin batzuen esanahi kulturala errespetatzea, onartua senti dadin, eta familian bizi duenaren eta ikastetxekoaren artean kontraesanik izan gabe.
- Harreman ona izatea euren familiekin edo legezko ordezkariekin.
- Udaleko gizarte-zerbitzuekin, atzeritarren elkarteekin eta etorkinei laguntzeko erakundeekin batera lan egitea.

## 5. Helburuak

### 5.1. Helburu orokorra

---

Plan honen helburu orokorra ikasle etorkin guztien eskola-integrazioa lortzea da, integrazio sozial eta kulturala bultzatuz, euren hizkuntza, kultura, gizarte-maila eta jatorria alde batera utzita.

### 5.2. Berriazko helburuak

---

Plan honen berriazko helburuak hauek dira:

- EAEko hizkuntza ofizialak ahoz nahiz idatziz menderatzea.
- Gainerako ikasleek jarraitzen duten curriculum bera izatea.
- Autonomia pertsonal progresiboa lortzea eskolaren eta gizartearen eremuaren baitan.

Horretarako hartuko diren neurriak:

- Ikasleen hezkuntza-beharren eta behar linguistikoen diagnostikoa egitea.
- Ikasle etorkinen eskolatzeko azkarra eta egokia bideratzea, bertako ikasleen egoera berean.
- Hezkuntza-behar eta behar linguistiko pertsonalei erantzutea, banakako ahalegin eta/edo ahalegin kolektiboen bidez edo curriculumarekin egokituz.
- Bertako taldeko kideek ikasle etorkinak parekidetzat har ditzaten bultzatzea.
- Kultura-desberdintasunen integrazioa bultzatzea, kultura horiekiko errespetua eta elkarren arteko ezagutza sustatuz.

### 5.3. Helburuen lorpena

---



Aurrez adierazitako helburuak aintzat hartuta, ikasleek honako hauek lortu beharko dituzte, helburuak beteko badira:

1. Bi hizkuntza ofizialen ezagutza, curriculum jarraitzeko modukoa izatea.
2. Curriculum gainerako ikasleekin batera jarraitzeko gai izatea.
3. Hezkuntza-komunitateko jarduera guztietan gainerako ikasleek bezala parte hartzea.

## 6. Eskolaztea orientatzeko irizpideak

### 6.1. Aurregogoetak

---

Kontuan izan behar da lurralde, biztanleria edo ikastetxe bakoitzeko egoera oso desberdina dela, eta, beraz, egoera jakin bakoitza hartu behar dela abiaburu gisa, ikasle etorkinen harrera eta arretako prozesua abian jartzeko eta hobetzeko.

Oinarri hartuta eskolatzeko baldintzen hasierako egoerari dagozkion datu kuantitatibo eta kualitatibo, ikasleen integrazio-maila eta hezkuntza-etapa desberdinetako oinarritzko gaitasunak eskuratzea, Planaren jarraipena egingo da, ekintzen eraginkortasuna eta proposatutako helburuen betetze-maila ebaluatzeko.

Ikaslearen eta eskola-zikloaren inguruabar sozial eta pertsonalen arabera alda daitezkeela aintzat hartuta, hobekuntzaren adierazleak honako elementu hauen arabera izango dira:

- Ikaslea heltzen denetik eskolatzen den arte igarotako denbora.
- Euskarazko eta gaztelaniazko gaitasun linguistikoaren maila.
- Area desberdinetako ebaluazioen emaitzak.
- Jarduera osagarrietako eta eskolaz kanpoko jardueretako partaidetza.
- Gurasoek eskolako jardueretan duten partaidetza.
- Eskolako harremanen giroa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako moduan bilduko dute informazio hori ikastetxeek, globalki erabili ahal izateko, beharrezko konfidentzialtasun-bermeak gordez.

### 6.2. Ikastetxea proposatzeko irizpideak

---

Matrikulatzeko epe arruntean ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan onartzeko prozesua, baldintza normaletan eta ohiko epearen barnean, otsailaren 4ko 14/1997 Dekretuan (otsailaren 9ko 9/2001 Dekretuak aldatutakoan) aurreikusitakoaren arabera beteko da, horrek arautzen du-eta ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta



pribatu itunduetan onartzeari buruzkoa. Familia etorkinak beren seme-alaben eskolatzeari buruz orientatzeko orduan, honako irizpide hauek izango dira kontuan:

- Funts publikoekin finantzaturako ikastetxe guztiek eskolatzeari laguntzen diotela.
- Ikastetxea ikaslea bizi den lekuan egotea edo eskatutakotik gertu.
- Ikastetxean naziotasun berdineko ikasleak egotea, edo familiako hizkuntza berekoak, betiere ghetto gisa ikusten ez bada.
- Bi hizkuntza ofizialak ikastea eta gainerako ikasleekin ondoen integratzea gehien bermatzen duen eredu linguistikoan eskolatzeari.
- Ikastetxeak bitarteko egokiak izatea ikasle horiek artatzeko.

Alabaina, eskolako biztanlerian oro har izaten ez diren eskakizun espezifiko batzuei erantzun beharrak, beste arrazoi batzuk ere kontuan hartzea gomendatzen du:

- Ikasle etorkinek dituzten beharrek, berezitat jo ez badaitezke ere, epe batean berariazko arreta indibidualizatua eskatzen dute, eta sarritan ohiz kanpoko baliabideak ere bai.
- Kultura bereko ikasle etorkinak ikastetxe berean egoteak abantailak ditu nortasun kulturalari begira, baina ikasle horien kopurua handiegia denean, inguruan integratzea oztopatzen du.
- Egoera sozial eta familiar baztertuan dauden ikasle etorkinak antzeko egoeran dauden beste ikasle batzuekin eskolatzeari marginaziora eraman ditzake ikasle etorkinak.

Matrikulatzeko epe arruntetik kanpoko ikasleei eskolatzeari proposamena egiteko, aurrez adierazitako balizko kasuetan, Lurralde bakoitzean Eskolatzeari Batzordeak sortzea xedatzen da.

### 6.3. Irakasteredua proposatzeko irizpideak

Ikasle bakoitzaren egoeraren arabera, eta familien aukera salbu utzita, irizpide hauek proposatzen dira, orientazio gisa:

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eredu hedatuenetara bideratuko dituzte, eta gaur egun eredu horiek B eta D dira kasu gehienetan. Nolanahi ere, Eskolatzeari Batzordeak aplikatuko dituen irizpideak hauek dira:

- Ingurunea euskalduna bada, D ereduan eskolatzeari proposatuko da, betiere eredu horretan gaztelania eskolaren eta curriculumaren testuinguruan erabiltzeko bide ematen bada.
- Ingurunea erdalduna bada nagusiki, egokia dirudi B ereduak; familiako hizkuntza ere gaztelania bada, eta ikasleek ez badute curriculum-behar esanguratsurik, gomendagarriena D ereduan eskolatzeari dela ematen du, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan behintzat.



- Ikasleek curriculum-behar esanguratsuak badituzte, batez ere Lehen Hezkuntzako bigarren edo hirugarren zikloan sartuz gero, komenigarria izango da euskararen curriculum-egokitzapen batzuk egitea B eta D ereduetan.

DBHn egokia dirudi B ereduan eskolatzea, baina beharrezkoa izango da euskararen curriculum-egokitzapen bat egitea. Ingurunea erabat euskalduna bada, D eredua hobesten da.

Dena dela, aurrerago ere argi eta garbi geratu den bezala, familiak dira azken batean eta eredu batean ala bestean (A, B nahiz D izan hori) matrikulatzea erabakitzen dutenak.

## 7. Jarduketaren eta esku-hartzearen ildoak

### 7.1. Euskal hezkuntza-sistemari buruzko informazioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak informazio-gida eleaniztun bat egingo du euskal hezkuntza-sistemari buruz, eredu linguistikoen berezitasuna azaltzeaz gain, aurretiko izen-emate eta matrikulazioetarako jarraibideak ematen dituena.

*IEPko 2.1 ekintza: Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko informazio-gida eleanitz bat prestatu eta zabaltzea, batez ere guraso, tutore, eta abarrek eskolako ordezkari-ta-organoetan parte har dezatela azpimarratuz.*

### 7.2. Onartzeko eta eskolatzeko prozesua

Matrikulazio-epearen aurretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxe guztietara bidaliko ditu ikasle etorkinak onartzeko prozesua arautzeko jarraibideak.

Lurralde bakoitzean, Eskolatzeko Batzordeak sortuko dira, matrikulazio-epetik kanpo aurkeztutako ikasle etorkinen eskolatzeko-erak aztertzeko eta erabakitzeko.

*IEPko 1.2 ekintza: Lurralde bakoitzean, Eskolatzeko Batzordeak sortu eta martxan jartzea*

Ikastetxea esleitutakoan, hasierako ebaluazio bat egingo da ikastetxean bertan, harrera-epearen barruan, eta ebaluazio horrek ikaslea behar bezala eskolatzeko neurri egokiak hartzea ahalbidetu beharko du.

### 7.3. Materialen zabalkundea

Irakasleentzako materialak banatuko dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren web orriaren bidez, eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzaren web orriaren (berrikuntza.net) bidez.

Bestalde, ikasle etorkinak tratatzeko eta artatzeko oinarritzko baliabideen kit bat banatuko zaie ikastetxeei.



## 7.4. Irakasleen prestakuntza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Lurralde bakoitzeko Aniztasuneko Arduradunen bitartez, Prestakuntza Plan bat egingo du ikasturte bakoitzerako. Plan horrek sensibilizazioko prestakuntza-eskaintzak egitea aurreikusten du, kultura arteko hezkuntzari buruz irakasleentzat oro har, eta hezkuntzako esku-hartzeari eta ikaskuntza linguistikoari buruz ikasle etorkinekin zuzenean inplikaturako irakasleentzat.

*IEPko 1.4 ekintza: Ikasle etorkinen interkulturalitatea eta eskolatzea kontuan izatea, EAEko Irakasleen Prestakuntza Plan Iraunkorraren (GARATU Planaren) ardatz nagusietako bat bezala: irakasleentzako gogoeta-ikastaro, -mintegi, -tailer eta -jardunaldiak eskaintzea.*

*IEPko 1.6 ekintza: Irakasleentzako mintegiak eta prestakuntza-ikastaroak antolatzea, ikasle etorkinei bigarren hizkuntzak irakasten laguntzeko.*

Ikasle etorkinek hezkuntzan esku-hartze egokia izan dezaten, irakasleek honako alderdi/alor hauek prestatuak izan behar dute:

- Kultura arteko hezkuntza
  - Kultura-aniztasuna.
  - Kultura anitzeko mundura egokitzea.
  - Interkulturalitaterako jarrerak eta gizarte-gaitasunak
  - Kultura arteko eskola-ereduak.
- Hezkuntzako esku-hartzea
  - Berariazko hezkuntza-beharrei antzematea.
  - Banakako plana: harrera-fasea eta integrazio-fasea.
  - Tutoretzaren egitekoa eta arloetako irakasleen egitekoa.
- Ikaskuntza linguistikoa
  - Ikaskuntza linguistikoaren ikuspegi komunikatiboa.
  - Ikaskuntza linguistikoaren faseak eta ereduak.
  - Hizkuntza-indargarriko irakasleen egitekoa.
  - Hizkuntza-indargarriko gelak eta saioak.
  - Hizkuntzako irakasleen eta arloetako irakasleen egitekoa.
- Kulturak curriculumean eta eskola-bizitzan
  - Curriculumaren kultura-gakoak.
  - Euskal Kultura, ikasle etorkinak gizartean integratzeko.
  - Irakasleen kulturaren eta hizkuntzaren presentzia curriculumean.
  - Ikastetxeko kulturen gakoak.

Halaber, aholkularitza emango zaie irakasleei ikasle etorkinen harrera, arreta eta jarraipenari buruz, Berritzeguneetako aholkularien bitartez.



*IEPko 1.5 ekintza: Berritzeguneetako kultura-aniztasunari eman beharreko arretari buruzko planak martxan jartzea*

Bestalde, lankidetzaz hitzarmenak ezarriko dira Euskal Unibertsitateekin, kultura arteko heziketari eta atzeritarrentzako hizkuntza-irakaskuntzari buruzko berariazko prestakuntza sartzeko irakasleen ikasketa-planetan, eta praktikak egiteko ikasle etorkinak eskolatzen dituzten ikastetxeetan.

*IEPko 1.7 ekintza: Berariazko laguntzak erakunde publiko eta pribatuentzat, ikasle etorkinak eskolatzeari, interkulturalitateari, ikastetxeetako aniztasunari jarri beharreko arretari, etabarri buruz ikastaroak eta mintegiak antolatzeke.*

## 7.5. Hizkuntza ofizialen irakaskuntzarako euskarri-ekintzak

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, kasuaren arabera, ikastetxe publikoetan hizkuntza-indargarriko gelak sortzea ahalbidetuko du, curriculumeko irakas-hizkuntza ezagutzen ez duten ikasle etorkin sartu berrientzat.

*IEPko 1.9 ekintza: Ikastetxe itunduentzako laguntza-bideak ezarri eta aplikatzea, berandu sartutako ikasle etorkinentzat hizkuntzak indartzeko neurriak gara ditzaten. IEPko 1.10 ekintza: Berandu sartutako ikasle etorkinentzat hizkuntza-programa indargarriak sortu eta martxan jartzea.*

Ikasle etorkin sartu berrientzako hizkuntza-indargarriko gelez gainera,

- Hizkuntza ofizialak ikasteko ikastaroak eskainiko zaizkie HHlan matrikulatutako ikasleei.

*IEPko 4.1 ekintza: Gure kultura- eta hizkuntza-errealitatearen ezagutza indartzea HHlko ikastetxeetara datozen ikasle etorkinen artean.*

- Euskara-ikastaro trinkoak antolatuko dira, irailean eta ikasturtean zehar, ikasle espainieradunak DBHn sar daitezten.
- Akordioak sinatuko dira Hizkuntza Politikarekin eta beste erakunde batzuekin, ikastetxean euskara ikasteko aukerarik ez duten HHlko ikasle etorkinei zuzendutako euskara-ikastaroak antolatzeke.

*IEPko 2.1 ekintza: Euskaltegi-sarearen bitartez gazte etorkinei euskara irakasteko ekimenak bultzatzea beste hainbat erakunde publikorekin batera.*

*IEPko 4.1 ekintza: Gure kultura- eta hizkuntza-errealitatearen ezagutza indartzea HHlko ikastetxeetara datozen ikasle etorkinen artean.*

- Oporraldietan ikasleen egonaldi kolektiboak sustatuko dira hizkuntzak ikasteko.

## 7.6. Ama-hizkuntza eta jatorrizko kultura ikasteko programen laguntza

Irakastorduetatik kanpo izan arren, era horretako ikasketak eskaini ditzaketen erakundeekin edo elkarteekin lankidetzan aritzeko formulak bilatuko dira.

*IEPko 4.1 ekintza: Curriculumetan biztanle etorkinen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak sartzeko ekimenak aztertu eta tratatzea.*



*IEPko 1.15 ekintza: Gure gizartean eragin handiena duten atzerriko hizkuntzen (arabiera, txinera, etab.) ikasketa ikastetxeen hezkuntza-eskaintzan sartzeko formulak garatzea, sortzen den eskariaren arabera.*

## **7.7. Koordinazioa eta lankidetzaren Administrazioko beste zerbitzu batzuekin eta beste erakunde batzuekin**

---

Inmigrazioaren Euskal Plana eta dokumentu honetako jarduketa-ildoak erreferentziatzat hartuta, etengabeko koordinazioa izango da hainbat sailtako zerbitzuekin, eta probintzietako, eskualdeetako eta udaletako elkarte eta erakundeekin, eta etorkinen erakundeekin.

Eskolatze partekatuko formulak ezarriko dira beste erakunde batzuekin, DBHko bigarren zikloan sartzen diren ikasleentzat, etapa horren ondoren lan-merkatuan sartzea aurreikusten dutenentzat, hain zuzen ere.

Ikastetxeak erabiltzen utziko zaie eskola-orduz kanpo ikasle etorkinen berezko hizkuntza irakasteko baimena eskatzen duten elkartei.

## **7.8. Ikasle etorkinen asko dituzten ikastetxeetako kalitatearen hobekuntza**

---

Eskualdean, ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko eskolatze orekatua bermatzeko neurriak hartuko dira, hezkuntzako itunen bidez araututako prozeduraren bitartez.

Ikasleak baztertuak izateko arriskua dagoen lekuetako ikastetxeei instalazioak modernizatzeko eta eguneratzeko baliabideak emango zaizkie, halakorik behar baldin badute, euren irudia eta izena hobetzeko xedearekin.

Beharra duten ikastetxe publiko eta itunpekoen laguntza bereziak emango zaizkie, funtzionamenduko baliabideak, informatikakoak eta ikus-entzunezkoak ezartzeko, besteak beste.

Lankidetzaren formulak ezarriko dira beste erakunde batzuekin, ikastetxe horiei gizarte-laguntzaileak eta/edo bitartekariak eskaintzeko.

## **7.9. Bekak eta laguntzak**

---

Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasle etorkinentzako laguntza ekonomikoak handitu egingo dira, eskola-materialen, liburuen, eskolaz kanpoko jardueren eta abarren desfasea bere gain hartu ezin baldin badute.

Eskola-jantokirako laguntzak handitu egingo dira behar adina baliabide ez duten ikasleentzat.

Behar ekonomiko handiak dituzten ikasleentzako laguntza berezien edo salbuespenen formulak ezartzea aztertuko da.



## 8. Baliabide espezifikoak

### 8.1. Antolakuntza-baliabideak

---

Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan:

#### **Berriazko gelak ikastetxeetan**

Ikasle etorkinen kopuruak hala gomendatzen badu, ikastetxeek berriazko gela bat izango dute, batez ere harrerarako eta hizkuntza-indargarrirako, proiektu ireki batekin, eta banakako beharren arabera moldatzeko moduan. Hizkuntza-programa indargarri bat abiaraziko da berriazko gela horietan, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

Ikastetxearen barruko gunetzat joko dira gela horiek, eta izaera irekia, trinkoa, bitartekoa eta malgua izango dute. Bitartekoa, gela arruntean parte hartzeko prestatzen dituelako ikasleak; irekia, ikasleak ez direlako bertan izango irakastegun guztian; trinkoa, hezkuntza-gaitasuna eskuratzeko prozesua bizkortzeko esku-hartze azkarra delako, eta malgua, kopuruari eta bertan egoteko denborari dagokienez. Hizkuntza-indargarriaren arduradun den irakaslea arduratuko da gelako zereginez.

#### **Eskualdeko gelak**

Ikasle etorkinak hainbat ikastetxetan eskolatuta badaude eskualde batean, eta ikastetxe horietako bakar batean ere ez badago behar adinako banakako laguntza emateko aukerarik, beharrezkoa den kasu guztietan, hizkuntza-indargarrirako eskualdeko gela bat antolatuko da eskualdeko ikastetxe batean.

### 8.2. Giza baliabideak

---

Ikasle etorkinak integratutako taldearen tutorea izango da haien eskola-prozesuaren jarraipenaren arduraduna. Banakako planetik eratorritako zereginak irakasle arruntei esleituko zaizkie, eta hezkuntza-behar berezietatik edo hizkuntza-indargarritik eratorritako zereginak direnean bakarrik esleituko zaizkie berriazko irakasleei.

Hizkuntza-programa indargarriko planak Ikastetxearen Urteko Planean sartuko dira, eta irakasleek burutu beharreko zereginak zehaztuko dituzte, irakaskuntza arrunteko jarduerak alde batera utzita, ikasle etorkinen hezkuntza-beharrei erantzuteko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berriazko esku hartzeko programak ezarriko ditu ikasle etorkinentzako ikastetxeetan. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako mailetan, ikastetxe publikoetarako Hezkuntzako Berriazko Esku Hartzearen Proiektuen deialdiaren bitartez egingo da.

Ikastetxe publiko zein itunpeko guztiek, bai ikasle etorkinek ikastetxean ematen dituzten lehen egunetarako, bai familiekin harremanak izateko, ikaslearen familiako hizkuntza hitz egiten duen pertsonaren baten zerbitzuak eskatu ahal izango dituzte,





ikastetxean ez badago hizkuntza hori ez dakien irakaslerik. Pertsona horien kontratazioa Osabidezko Hezkuntzaren Kontsortzioaren bitartez egingo da.

*IEPko 1.17 ekintza: Lurralde bakoitzean itzulpen/interpretazioko zerbitzua mantentzea, harrerako fasean hezkuntza-sisteman sortzen diren beharrei erantzuteko.*

### **8.3. Baliabide materialak, didaktikoak eta teknologikoak**

#### **8.3.1. Beharrei antzeman, artatu eta jarraipena egiteko**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikasmaterialak egiteko baimena duten irakasleekin eta Berritzeguneetako Bizikidetzako eta Aniztasuneko Programaren Arduradunekin lankidetzan, Harrera Planaren eredu bat egingo du, ikastetxeari bere Harrera Plana egiteko gida gisa balio diezaion. Harrera Plan horrek ikasleen hasierako ebaluazioa eta prestakuntzaren ebaluazioa egiteko tresnak ere izan beharko ditu.

*IEPko 1.3 ekintza: Harrera Planaren eredu bat egitea ikastetxeetarako*

#### **8.3.2. Curriculumaren eremukoak**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kulturen arteko hezkuntzarako berriazko materialak sustatuko ditu, hainbat laguntza-programen bidez; laguntza horiek lantaldeentzako, prestakuntza eta berrikuntzako proiektuetarako, berriazko esku-hartzeko proiektuetarako eta xede horretako lizentziatarako izango dira.

*IEPko 1.12 ekintza: Kultura-aniztasunarekin zerikusia duten gaiak eta materialak berrikusi eta osatzea Berritzeguneetako Teknikarien bidez*

*IEPko 1.17 ekintza: Ikasketa-baimenak sortzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioari buruzko curriculum-materialak egiteko.*

Material didaktikoak egiteko orientazioak eta gomendioak emango dira, hizkuntza ez-arrazista eta ez-baztertzaila erabiltzeko xedearekin.

Euskal autoreen testuen egokitzapena bultzatuko da hainbat irakurketa-mailatarako, ikasle etorkinek ere euren gelakideek irakurtzen duten lan bera irakurtzeko aukera izan dezaten.

Ikasle etorkinek lehendik merkatuan dagoen materiala erabiltzeko orientazio didaktikoak egitea bultzatuko da.

#### **8.3.3. Linguistikaren eremukoak**

Haur Hezkuntzan ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia ikasteko materialak egitea bultzatuko da, eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko zikloetan hezkuntza-sisteman sartzen diren ikasleek irakurketa eta idazketa bizkor ikasteko materialak prestatzea ere bai.

Halaber, hiztegi elebidunak egitea sustatuko du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikasle etorkinek euskara errazago ikasteko aukera izan dezaten.



## 8.4. Baliabide ekonomikoak

---

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasle etorkinentzako hizkuntza-indargarrirako eta hezkuntza-indargarrirako laguntzak handituko ditu, xede horretarako Hezkuntza Itunen markoan argitaratzen diren deialdien bidez. Laguntza horiek ikastetxe publikoentzat emandako esleipen-irizpide berdinekin aplikatuko dira.

*IEPko 1.8 ekintza: Ikastetxe itunduentzako laguntza-bideak ezarri eta aplikatzea, curriculum-desfaseko arazo larriak dituzten ikasleak eta ikasle etorkinak hezkuntza aldetik indartzeko proiektuetarako.*

Bekak eta laguntzak eskatzeko epeza kanpo sartu diren eta behar adinako baliabide ekonomikorik ez duten ikasleei erantzuteko diru-esleipenak zabalduko dira.

## 9. Eskumen-mailak

Bakoitzak duen eskumen-maila aintzat hartuta, neurri hauek hartuko dira hainbat mailatan:

### 9.1. Hezkuntza Sailburuordetza

---

Hezkuntzako Sailburuordetzari dagokio:

- Jarduketa Plan Orokorra egitea.
- Jarduteko eta esku hartzeko ildoak ezartzea.
- Eskolatzeko Lurralde Batzordeen funtzionamendua koordinatzea.
- Lurralde bakoitzean burutu beharreko ekintzak koordinatzea.
- Autonomia Erkidegoko beste sail eta erakunde batzuekin lankidetzan jardutea eta koordinatzea.
- Egin beharreko jarraibideak, orientazioak eta araudiak egitea, eta ikastetxeetara bidaltzea.

### 9.2. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak

---

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari dagokie ondorengo neurriak hartzea:

- Lurralde Batzordea sortzea.
- Baliabideak ikastetxeen beharren arabera kudeatzea.
- Irakasleen prestakuntza sustatzea.
- Ikastetxeetako baliabideak gainbegiratzea.



- Programa indargarriko gelak sortzea.
- Probintziako eta eskualdeko zerbitzuekin lankidetzan aritzea.

### 9.3. Ikastetxeak

Nagusiki ikastetxeei eta bertako profesionaleri dagokie ikasle etorkinen eskolako harreraren eta integrazioaren plana egitea. Horretarako, ondorengoak egin beharko dituzte:

- Ikastetxeko harrera eta integrazioko plan bat egitea, ikasleek curriculumaren jarraipen normalizatua egitea bermatzen duen eskolatzea eta eskola-eremuko autonomia progresiboa ahalbidetzen dituen.
- Ikasleen hezkuntza-beharrak zehaztea, eta erantzun egokia eta pertsonalizatua ematea.
- Hezkuntza-proiektua eta ikastetxearen funtzionamendua ikasle berriei eta euren familiei ezagutzera ematea.

Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, irakasleek egindako harrera-planaren eredu bat bidaliko du ikastetxeetara, horiei beren Harrera Plana egiteko gida gisa balio diezaien.

### 9.4. Berritzeguneak

Berritzeguneei dagokie oro har irakasleen prestakuntza-programen antolamendua eta jarraipena, eta ikasle etorkinen arretan inplikaturako irakasleena ere bai.

## 10. Harrera eta integrazioko berariazko plana

Ikasle etorkin asko dauden lekuetan, harrera eta integrazioko berariazko Plan bat egingo da, aurrez aipaturako helburu orokorra modu eraginkorragoan lortzen saiatzeko.

Planaren esku hartzeko estrategiak hauek izango dira:

- Ikasleen harrera antolatzea, ikastetxe bakoitzeko inguruabarren arabera.
- Baliabideak behar den moduan eta ikastetxe bakoitzeko beharren arabera optimizatzea, ezarritako irizpideei jarraiki.
- Ikasleen integrazioari lagun diezaioketen tokiko zerbitzu guztiak inplikatzeko eta koordinatzea, etorkinak integratzeko udal planak kontuan hartuta. Horretarako lankidetzak-hitzarmenak ezarriko dira beste sail eta administrazio batzuekin.

Eskolatze Batzordearen markoan sortutako berariazko batzorde batek kudeatuko du berariazko Plana, eta batzorde horretako ikuskatzailea izango du buru.



*IEPko 1.11 ekintza: Hezkuntzako Berriazko Esku Hartze Proiektuei laguntzak emateko urteko deialdia, eremu baztertuetakoko ikastetxe publikoentzat eta/edo eskola-ingurunera egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleentzat.*